JARDUERA



Klaustrokideen iritziak azaleratzeko galde-sortak

2

HELBURUAK
· Klaustrokideen iritziak azaleratzea. **· Hizkuntza Proiektuak biltzen dituen gogoeta-esparruak aurreikustea.**
prozedura
Hiru galde-sorta proposatzen dira eredu gisa (ikastetxeak bere beharrizanen eta egoeraren arabera molda ditzake). Jarduera hau burutzeko bi aukera hauek aurreikusten dira: · Irakasleak klaustroan bilduta eta talde heterogeneotan erantzungo dituzte galde-sortak. Gero, talde handian azalduko dituzte sortutako adostasunak eta taldekideen arteko desadostasunak. · Galde-sortak banatu eta irakasleek banaka erantzungo dituzte. Koordinatzaileak, Hizkuntza Proiektuaren batzordekideek lagunduta, erantzunak jasoko ditu eta ikastetxearen “argazkia” aterako du, adostasunak eta desadostasunak ikusaraziz.

emaitza | ekoizpena	denbora | denboralizazioa
Galde-sorta hauek ez dute erantzun bakarra. Irakasleen eztabaida bultzatzea dute helburu; izan ere, erantzunen arteko aldeak Hizkuntza Proiektuaren inguruko eztabaidaren abiapuntua izan daitezke.	30 minutuko saioa: 5 minutu galde-sorta betetzeko eta 25 minutu inguru erantzunen gainean aritzeko.
tresnak	**ereduak | adibideak**
2.1. **tresna.** A galde-sorta, Hizkuntza Proiektuaren xedeaz eta esanahiaz | 52. or. **2.2. tresna**. B galde-sorta, Hizkuntza Proiektua egiteko zergatiez | 53. or. **2.3**. **tresna.** C galde-sorta, Hizkuntza Proiektuak dakartzan erabakiez | 54. or.	